<b>Langabezia dauden biztanleak</b>	<b>16,3</b>	<b>-3</b>	<b>-15,7</b>
Emakumeak	7,3	-2	-23,5
Gizonak	9,1	-0,8	-7,6
<b>Langabezia - tasa</b>	<b>9,62</b>	<b>-1,8</b>	
Emakumeak	9,06	-2,8	
Gizonak	10,10	-1,0	

Urteko datuak hiruhileko lau inkestean batezbestekoei dagozkie.

Iturria: INE: Biztanleria Aktiboaren inkesta (BAI)

info +

3

# Lan - Merkatua

Biztanleria aktiboa, lana eta langabezia

## Biztanle afiliatuak


Egoiliarrei erregistratutako kontratuak

Erregistratutako langabezia

2022a ixtean, 186.491 pertsona zeuden afiliatuta, eta Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen azken 15 urteotako maximoarekin, eta azken urtean 6.715 afiliatu gehiagorekin. Araubide Orokorrak afiliazioen % 83,6 hartzen du, eta % 4,5 hazi da. Langile Autonomoen Araubide Berezia, aldiz, % 12,5ekoa da, % 0,7 galdu duelarik.

Sektoreei erreparatzen badiegu, afiliazioak Zerbitzuetan eta Eraikuntzan igo dira, baina Lehen sektorean eta Industrian galdu dute. Enplegu gehien sortzen duen adarra Hezkuntza da, eta azken urtean gehien hazi da. Ondoren Merkataritza dago, egonkor jarraitzen duela administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak sektorea izanik gehien hazi den bigarrena.

### ■ Biztanle afiliatuak



### Bilbon dauden enpresetan afiliatutako biztanleak

	2022	Urteko ald.	
		Absolutua	%
<b>Guztira</b>	<b>186.491</b>	<b>6.715</b>	<b>3,7</b>
<b>Lehena</b>	<b>274</b>	<b>-64</b>	<b>-18,9</b>
<b>Industria eta Energia</b>	<b>8.559</b>	<b>-6</b>	<b>-0,1</b>
<b>Eraikuntza</b>	<b>9.182</b>	<b>346</b>	<b>3,9</b>
<b>Zerbitzuak</b>	<b>168.476</b>	<b>6.460</b>	<b>4,0</b>
Merkataritza	19.750	-3	0,0
Jarduera administratiboak eta zerbitzu osagarriak	17.653	855	5,1
Hezkuntza	24.098	1.230	5,4
Jarduerak profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	14.321	621	4,5
Herri administrazioa	12.118	410	3,5
Osasuna	14.413	245	1,7
Gizarte Zerbitzuak	9.890	502	5,3
Finantza eta aseguruak	7.115	128	1,8
Garraioa eta biltegiatzea	9.095	344	3,9
Ostalaritza	10.087	749	8,0
Informazioa eta komunikazioak	9.374	468	5,3
Etxe-langileak	6.857	77	1,1
Aisialdikoak eta kulturalak	4.114	251	6,5
Ostatua	1.699	230	15,7
Higiezinak	1.248	45	3,7
Beste zerbitzu batzuk	6.644	310	4,9
<b>Afiliatutako biztanleak araubidearen arabera</b>			
Araubide orokorra	157.092	6.762	4,5
Nekazaritzako Araubide Berezia	126	-56	-30,8
Itsasoko Araubide Berezia	535	84	18,6
Etxeko Langileen Araubide Berezia	6.386	90	1,4
Autonomoen Araubide Berezia	22.352	-165	-0,7

Iturria: Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioa .

info +

# 3

## Lan - Merkatua

Biztanleria aktiboa, lana eta langabezia

Biztanle afiliatuak

**Egoiliarrei erregistratutako kontratuak**


Erregistratutako langabezia

2022an zehar, 123.448 lan-kontratu berri egin zitzaizkien Bilboko egoiliarrei, hau da, % 4,4 gutxiago, eta urte betean 5.736 kontratu berri galdu ziren. Gertaera hori 32/2021 Lege Errege Dekretua aplikatzearen ondoriozko emaitza da, lan erreformarako premiazko neurriena, zeinak aldi baterako kontratazioaren baliabidea murriztu zuen. Ondorioz, aldi baterako kontratuak totalaren % 10,8 izatetik 2021ean, % 29,7 izatera igaro ziren 2022an. Bien bitartean, aldi baterako kontratuak % 25 jaitsi ziren.

Sexuaren arabera, egindako kontratuak nahiko parekatuta daude. 25 eta 34 urte bitartekoei egindakoak nabarmentzen dira, eta baita 45 urte edo gehiagokoei egindakoak ere. Gazteei egindako kontratuak dira hazi ziren bakarrak. Zerbitzuen sektoreak egin ditu kontratu gehien, baina sektore guztiek egin dute atzera. Hamar kontratutik hiru mugagabeak dira.

48.802 pertsona kontratatu dira, % 8,5 gehiago, eta pertsona bakoitzeko 2,53 kontratuko errotazio-indizea egon da, legeria aldaketak eragindakoaren isla.

### ■ Egoiliarrei egindako kontratuen banaketa sektorearen arabera



### Bilbon bizi diren biztanleek erregistratutako kontratuak

	2022	Urteko ald.	
		Absolutua	%
<b>Erregistratutako kontratuak guztira</b>	<b>123.448</b>	<b>-5.736</b>	<b>-4,4</b>
Emakumeak	61.466	-1.404	-2,2
Gizonak	61.982	-4.332	-6,5
16 eta 24 urte bitartean	26.093	1.810	7,5
25 eta 34 urte bitartean	35.481	-2.250	-6,0
35 eta 44 urte bitartean	27.483	-2.766	-9,1
45 urte edo gehiago	34.391	-2.530	-6,9
Langile mugagabeak	36.712	22.658	161,2
Aldi baterakoak	86.736	-28.394	-24,7
Lehena	2.011	-599	-23,0
Industria	10.363	-726	-6,5
Eraikuntza	5.365	-128	-2,3
Zerbitzuak	105.709	-4.283	-3,9
Zuzendaritza-postuak, teknikariak eta zientzialariak	30.078	-473	-1,5
Administrazioko langileak eta bulegoetako beste batzuk	13.177	3.127	31,1
Zerbitzuetako trebatutako beste langile batzuk	39.000	907	2,4
Industriarako trebatutako langileak	13.055	-1.038	-7,4
Trebatu gabeko langileak	31.794	-4.336	-12,0
Beste langile batzuk	277	10	3,7
Kontratutako pertsonak	48.802	3.830	8,5
Errotazio-indizea	2,53	-0,34	-11,9

Iturria: SEPE

info +

3

# Lan - Merkatua

Biztanleria aktiboa, lana eta langabezia

Biztanle afiliatuak

Egoiliarrei erregistratutako kontratuak

**Erregistratutako langabezia**


2022aren bukaeran 21.606 pertsona daude langabezian Bilbon, 2021ean baino 525 gutxiago, eta azken 14 urteotako langabeziaren datu baxuena bihurtu da. Esan dezakegu gizonezkoak direla gehien jaitsi direnak, 516 gutxiagorekin. Langabeziak jaitsiera nabarmenena 35 eta 44 urte bitartekoetan izan du, eta, ondoren, 45 urtetik gorakoetan. Gainera, iraupen luzeko langabetuekin bat dator.

2022an zehar, langabeziaren joera ona izan da jarduera sektore guztietan, zerbitzuetan izan ezik, non langabetuen kopurua igo den. Eraikuntzak izan du joera onena, industriaren aurretik. Ikasketa-maila baxuenak dituzten pertsonak langabeziatik atera dira gehien, eta lanbide-ikasketak eta batxilergoa egin dituztenak, berriz, langabezian geratu dira erregistroetan. Langabeak biltzen dituzten lanbide kategoriak kualifikaziorik gabekoak dira eta gainerakoak, berriz, gehiago edo gutxiago. Termino absolutuetan, kategoria teknikoetakoak eta beste lanpostu kualifikatu batzuetakoak dira langabezia-zerrendetatik gehien ateratzen direnak.

2022ko langabeziak gehiago eragin die 3 urtetik gora langabezian dauden, oinarritzko ikasketa maila duten eta zerbitzuen sektorean lan egin duten 45 urtetik gorako emakumeei.

Langabetuen % 71k ez du inolako prestaziorik jasotzen.

## Erregistratutako langabezia



## Erregistratutako biztanleria langabetua

	2022	Urteko ald.	
		Absolutua	%
<b>Guztira</b>	<b>21.606</b>	<b>-525</b>	<b>-2,4</b>
Emakumeak	12.052	-9	-0,1
Gizonak	9.554	-516	-5,1
16 eta 24 urte bitartean	1.688	4	0,2
25 eta 34 urte bitartean	3.467	-89	-2,5
35 eta 44 urte bitartean	4.377	-331	-7,0
45 edo gehiago	12.074	-109	-0,9
6 hilabetera arte	7.202	165	2,3
6 hilabetetik gora eta urte 1	2.607	36	1,4
1 urtetik gora eta 2 urte	2.949	-109	-3,6
2 urtetik gora eta 3 urte	1.690	-540	-24,2
3 urtetik gora	7.158	-77	-1,1
Nahitaezkoak diren arte	12.942	-580	-4,3
Batxilergoa	2.270	27	1,2
Profesionalak	3.430	76	2,3
Unibertsitateko ikasleak	2.964	-48	-1,6
Lehena	398	-44	-10,0
Industria	1.558	-148	-8,7
Eraikuntza	1.442	-284	-16,5
Zerbitzuak	15.141	167	1,1
Aurretik lanik gabe	3.067	-216	-6,6
Ez du jasotzen laguntzarik	15.420	-2.082	-11,6
Laguntzak jasotzen ditu	6.186	-929	-12,8

Iturria: Lanbide y SEPE

[info +](#)



4

# MERKATARITZA

Establezimenduak eta enpresak

Soldatadun enplegua

Etxeetako kontsumoa

Sektoreko salmentak

## 4

# Merkataritza

## Establezimenduak eta enpresak

Soldatadun enplegua  
Etxeetako kontsumoa  
Sektoreko salmentak

2022aren hasieran Bilbok 5.947 negozio-unitate zituen merkataritza jarduerari lotuta, eta naiz eta enpresa-ehunaren osotasunari ekarpena gutxitzen jarraitu, udalerrian pisu handiena duen adarra jarraitu zuen izaten (% 20). Txikizkako merkataritzako eskaintza totalaren % 72 zen, 4.284 establezimendurekin. Handizkakoa, aldiz, % 28koa zen, 1.663 unitaterekin. Bi kategoriek izan zuten jaitsiera; % 2,5ekoa txikizkakoaren kasuan, eta % 3,1ekoa handizkakoan.

Azken urtean galdutako txikizkako merkataritzako establezimenduen galera 111koa izan zen, azken urtetako joerari eutsiz, eta lotuta dago udalerriko enpresa-ehunaren osotasunean duen tokiarekin. Emaidza egiturazko osagai bati dagokio, eta bat dator pertsonen kontsumo-ereduetako aldaketekin, produktu eta zerbitzu jakin batzuk on line saltzearen bultzadarekin, bai eta merkataritza tradizionalera mugiarazten duten kate komertzialen gorakadarekin ere, eta hori guztia negozio askotan belaunaldi-erleburik ez egotearekin.

## Txikizkako merkataritzako establezimenduak

	2022	2022/2021	
		Absolutua	%
<b>Txikizkako merkataritza guztira</b>	<b>4.284</b>	<b>-111</b>	<b>-2,5</b>
Elikagaiak, supermerkatuak eta beste establezimendu ez espezializatuak	1.605	-29	-1,8
Ehungintza eta oinetakoak	770	-40	-4,9
Produktu farmazeutikoak, ortopedia, edertasuna eta drogeria	302	0	0,0
Etxeko ekipamendua eta eraikuntza	548	-17	-3,0
Liburuak, egunkariak, papergintza-gaiak	139	-3	-2,1
Bitxigintza	121	-6	-4,7
Jostailuak eta kirol-gaiak	76	-5	-6,2
Loradendak eta parekoak	61	2	3,4
Lurreko ibilgailuak	79	-3	-3,7
Informazioko eta komunikazioko teknologientzako ekipoa	134	5	3,9
Saltoki eta merkatu txikietako merkataritza	104	1	1,0
Posta edo Internet bidezko salmenta	65	-2	-3,0
Gainerako txikizkako merkataritza	280	-14	-4,8

Iturria: Eustat. Urte bakoitzeko urtarrilaren 1eko DIRAE

[info +](#)

# 4

## Merkataritza

### Establezimenduak eta enpresak

Soldatadun enplegua  
Etxeetako kontsumoa  
Sektoreko salmentak

40 establezimenduko murrizketa garbiarekin (-% 4,9 urte batetik bestera), ehungintza eta oinetakoen txikizkako merkataritzak sektorearen balantze orokor txarra du. Horren ondoren, datu absolutuetan, txikizkako jarduerak behera egin du elikadura-establezimenduetan, supermerkatuetan eta espezializatu gabeko beste establezimendu batzuetan (- 29 establezimendu, -% 1,8), etxeko ekipamenduetan eta eraikuntzan (- 17 establezimendu, -% 3) eta gainerako txikizkako merkataritzan (- 14 establezimendu, -% 4,8).

Beste urte batez, produktu farmazeutikoen eta edergintzako produktuen merkataritzak egonkor jarraitzen du eta bost negozio dira informazio eta komunikazio teknologientzat ekipoak saltzen dituzten establezimenduak, bi lora-dendak eta antzerakoak, eta bat denda ibiltaria.

Ugarienak Elikadura, edariak eta tabakoa arloko txikizkako merkataritzako establezimenduak dira, 1.605 guztira. Ondoren, Ehungintza eta oinetakoena, 770ekin, eta etxeko ekipamendua eta eraikuntzakoak, 548ekin. Handizkako merkataritzaren artean, elikadura, edariak eta tabakoa nabarmentzen da eta, ondoren, beste makina, ekipo eta hornikuntza batzuk. Merkataritzako bitartekariak handizkako eskaintzaren % 45,8 adierazten dute.

Bestetik, Merkataritzari lotutako Gizarte Segurantzaren erregistratutako soldatako langileak dituzten enpresen erregistroa 2.447ra arte jaitsi da, 2021ean baino -%2,4 gutxiago, alegia. Horietatik, 1.675 Txikizkako merkataritzari dagozkio, 606 Handizkakoari eta 166 motordun ibilgailuen salmenta eta konponketari. Segmentu horietako bakoitzak erregistroak galtzen ditu.

Sektorea honetako autonomoen taldeak ere atzera egin du, eta 5.450 pertsonarekin bukatu du urtea, aurreko urteko zifra baino % 2,3 txikiagoarekin.

**Merkataritza jarduerak azken urteotako negozioen jaitsieraren joera berarekin jarraitzen du.**

**Merkataritzako enpleguaren % 72 soldatako langileak dira; % 28, aldiz, autonomoak.**

### Handizkako merkataritzako establezimenduak

	2022	2022/2021	
		Absolutua	%
<b>Handizkako merkataritzaren total</b>	<b>1.663</b>	<b>-53</b>	<b>-3,1</b>
<b>Handizkako merkataritza</b>	<b>901</b>	<b>-12</b>	<b>-1,3</b>
Nekazaritzako lehengaiak eta animalia biziak	16	2	14,3
Elikadura, edariak eta tabakoa	163	2	1,2
Ehunak, jantziak eta oinetakoak	70	-11	-13,6
Produktu farmazeutikoak, lurrindegia eta kosmetika	103	-7	-6,4
Etxean erabiltzeko beste gai batzuk	124	-1	-0,8
Informazioko eta komunikazioko teknologientzako ekipoak	54	-1	-1,8
Beste makina, ekipo eta hornikuntza batzuk	156	5	3,3
Handizkako beste merkataritza batzuk	215	-1	-0,5
<b>Merkataritzako bitartekariak</b>	<b>762</b>	<b>-41</b>	<b>-5,1</b>

Iturria: Eustat. Urte bakoitzeko urtarilaren 1eko DIRAE

[info +](#)

### Soldatako langileak dituzten enpresak

	2022	2022/2021	
		Absolutua	%
<b>Soldatako langileak dituzten enpreseen totala</b>	<b>2.447</b>	<b>-59</b>	<b>-2</b>
Merkataritza: Handizkako merkataritza eta bitartekariak	606	-5	-1
Merkataritza: Txikizkako merkataritza	1.675	-41	-2
Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa	166	-13	-7

Iturria: Inklusioa, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioa

[info +](#)

4

# Merkataritza

Estabezimenduak eta enpresak

**Soldatadun enplegua**

Etxeetako kontsumoa  
Sektoreko salmentak

Bilboko merkataritzako enplegua ia ez zen aldatu urtearen bukaeran, 19.750 pertsona zeuden alta emanda, hau da, azken hiru jardunaldiekiko azpisektore honetan enpleguaren sorrera moteldu da. Talde bakoitzaren xehetasunean, Txikizkako merkataritzak bakarrik izan du igoera, 83 enplegaturekin. Handizkakoak, aldiz, 59 galdu ditu, eta Autoen salmentak eta konponketak 27 afiliatu gutxiago ditu.

Besteentzako lan egiteko enplegatutako pertsonak 14.300 dira, iaz baino 123 afiliatu gehiago. Autonomoen kasuan, gizarte segurantzaren kotizazioaren % 28 dira, eta 126 afiliatutan jaitsi da, hau da, 5.450 pertsona autonomo daude.

Merkataritza sektoreak azken urteko enplegu-tasa berbera du.

■ **Enpleguaren banaketa afiliazio-motaren arabera**




**Enplegatutako pertsonak**

	2022	2022/2021	
		Absolutua	%
<b>Enplegatutako pertsonak guztira</b>	<b>19.750</b>	<b>-3</b>	<b>0</b>
Merkataritza: handizkako merkataritza eta bitartekariak	4.374	-59	-1
Merkataritza: txikizkako merkataritza	14.260	83	1
Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa	1.116	-27	-2
Soldatadun pertsonak	14.300	123	1
Pertsona autonomoak	5.450	-126	-2

Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioa

info +

■ **Soldatapeko enpleguaren banaketa merkataritza motaren arabera**



4

# Merkataritza

Estabezimenduak eta enpresak

Soldatadun enplegua

**Etxeetako kontsumoa**

Sektoreko salmentak

Bizkaiko etxeetako gastu totala 16.949 eurokoa izan zen 2022an, aurreko urtekoa baino % 7,8 handiagoa, eta EAE osoaren % 52,1 da. Etxebizitzari esleitutako aurrekontuak pisu handiena du (% 35,7), eta jarraian daude Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (% 14,7) eta Jatetxeak eta hotelak (% 11,4). Lehenengo bi kategoriak jaitsi egin dira 2021arekiko, 2,3 puntu eta -% 0,1 hurrenez hurren, jatetxeetan eta hoteletan gastuak gutxien irabazten duelarik, 1,8 puntu.

Etxe bakoitzaren batez besteko gastua 34.473 eurokoa izan zen, Euskal Autonomia Erkidegoaren batezbestekoa baino % 2,8 txikiagoa. Aurreko urtearekiko, % 5,4 hazi zen. Igoera hori Jatetxeak eta hotelak (% 25), Altzairuak eta etxerako gaiak (% 23,4), Irakaskuntza (% 18) eta Aisialdia eta kultura (% 15,3) arloko gastuen taldean izandako igoeraren ondorioa da.


Garraioak (% 9,5), Osasunak (% 8,5) eta Jantziek eta oinetakoek (% 6,8) ere egin dute gora. Jaitsi diren gastuen sortak Alkoholodun edariak eta tabakoa (-% 19), Komunikazioak (-% 3,4), Beste ondasun eta zerbitzu batzuk (-% 2,2) eta, azkenik, Etxebizitzari lotutako gastuak (-% 1,1) dira.

Etxeetan Interneten kontsumitutako gastuak gorantz jarraitzen du (+% 4,24) eta euskal etheen gastu totalaren % 4,6 da. Aisialdiko eta kulturako gastuaren taldea (%23,5) da formatu horretan adierazgarriena eta, ondoren, Jantziak eta oinetakoak (% 15,3), nahiz eta honek pisua nabarmen galdu duen (% 32,4 baitzen 2021ean). Jatetxeak eta hotelak taldeak ere eresketa aukera hori % 10,5ean erabiltzen du online bidezko gastuarekiko.

## Etxeetako kontsumo - gastuaren egitura. Bizkaia

	2022	
	Gastu totala	Gastuaren %
<b>Gastu totala</b>	<b>16.948.702</b>	<b>100</b>
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	2.495.727	14,7
Alkoholodun edariak eta tabakoa	204.225	1,2
Jantziak eta oinetakoak	671.807	4
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk	6.046.847	35,7
Altzariak, etxeko gaiak eta ohiko moduan mantentzeko gaiak	876.459	5,2
Osasuna	512.585	3
Garraioa	1.446.819	8,5
Komunikazioak	444.339	2,6
Aisialdia eta kultura	747.382	4,4
Hezkuntza	365.145	2,2
Jatetxeak eta hotelak	1.930.788	11,4
Beste ondasun eta zerbitzu batzuk	1.206.581	7,1

Iturria: Eustat. Familien Gastuen Estatistika



4

# Merkataritza

Establezimenduak eta enpresak  
Soldatadun enplegua  
Etxeetako kontsumoa  
**Sektoreko salmentak**


Bizkaian hazten jarraitu zuen 2022an merkataritza sektoreak, prezio arruntetan % 17,1 hasita, handizkako segmentuaren dinamismoak bultzatuta eta, neurri txikiagoan, txikizkako segmentuak lagunduta (+% 9,1) zerbitzu-guneak kanpo utzita. Jardunaldi horretan, motordun ibilgailuen salmenta eta konponketak (+% 3,4) bilakaera positiboa izan du.

Txikizkako merkataritzaren segmentuak bilakaera ona izan du, elikaduraz kanpoko taldeak (% 9,8) eta elikagaien taldeak (% 8,3) bilakaera positiboa izan dutelako; izan ere, aurreko ekitaldian beherakada txiki bat izan zuen. Automobilgintzarako erregaiaren salmentak igoera nabarmena izan du (% 38,7).

Azken urtean ibilgailuen matrikulazioak % 9 galdu zuen Bizkaian. Emaitza negatiboa izan arren, 2021ean baino jaitsiera txikiagoa izan zuen (-% 21). Partikularen segmentua da gehien galtzen duena (-% 12), eta enpresek -% 5 galdu zuten. Beste batzuk atala bakarrik igo zen (% 88).

**Bizkaiko merkataritzako salmenta - indizearen igoera nabarmena: %17▲**

## ■ Autoen salmenten banaketa Bizkaian



## Merkataritzako salmentak

	2022	2022/2021
<b>Merkataritza salmenta-indizea</b>	<b>134,6</b>	<b>17,1</b>
<b>Txikizkako merkataritzako indizea</b>	<b>122,6</b>	<b>10,5</b>
Elikadura	123,8	8,3
Gainerako produktuak	120,2	9,8
Automobilgintzarako erregaia	135,8	38,7
Indize orokorra hornitegirik gabe	121,9	9,1
<b>Handizkako merkataritzako indizea</b>	<b>147,5</b>	<b>24,2</b>
<b>Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa</b>	<b>114,5</b>	<b>3,4</b>

Iturria: EUSTAT.

[info +](#)

## Ibilgailuen matrikulazioak

	2022	2022/2021	
		Absolutua	%
<b>Matrikulazio totalak</b>	<b>11.342</b>	<b>-1.114</b>	<b>-8,9</b>
Partikularrak	7.169	-957	-11,8
Enpresak	3.932	-184	-4,5
Beste batzuk	402	188	87,9

Iturria: Faconauto

[info +](#)

# 5

# TURISMOA

Jarduera turistikoa hotel establezimenduetan eta apartementuetan

Hotel establezimenduak

Apartamentuko establezimenduak

Aireko turismoa eta gurutzealdikoa

Kongresuen eta bileren turismoa

5

# Turismoa

## Jarduera turistikoak hotel establezimenduetan eta apartamentuetan

- Hotel establezimenduak
- Apartamentuko establezimenduak
- Aireko turismoa eta gurutzealdikoa
- Kongresuen eta bileren turismoa

2022an, pandemia nagusi izan den bi urteren ondoren, Bilboko jarduera turistikoak berreskuratze sendoaren adierazle argiak ditu, eta 2019an lortutako maila historikoa gainditu ere egin du. Bilboko berraktibazio turistikoa hiria jomuga turistiko gisa erakarpen testimonioa da, eta tokiko industria turistikoa bultzatzeko egin diren esfortzuena ere.

Eustatek egindako establezimendu turistiko hartzaileen (ETH) inguruko inkestako datuen arabera, Bilbok 109 establezimendu zituen turisten ostaturako 2022an, zeinak 89 hotel eta apartamentu turistikoko 20 establezimendutan banatuak.

Era berean, Jarduera Ekonomikoen Direktorioak (DIRAE) 163 establezimendu erregistratu ditu ostatuari lotuta, aurreko urtean zituenak baino % 5,2 gehiago. Horietatik, 104 hotelei eta antzerako ostatuei dagozkie, eta gainerakoak ostatu turistikoak eta beste ostatu batzuk dira.

2022An zehar, hiriak 1.109.090 turista hartu ditu guztira hotel eta apartamentu turistikoetan, hau da, % 67,4 gehiago 2021arekiko, eta Bizkaiko eta EAeko hazkuntza-tasak gainditu ditu. Bizkaiak % 60,5eko igoera izan du, eta EAek, aldiz, % 53,6koa.

Bidaiari guztietatik, ETRan zenbatuak, jomuga gisa Bilbo aukeratu dutenak, % 93,6k hiriko hoteletan geratzea aukeratu du eta gainerakoek (% 6,4) Hirian zehar sakabanatutako apartamentu turistikoetan nahiago izan dute ostatu hartzea.

Apartamentuen establezimenduak gero eta gehiago dira Bilbon, eta gero eta bideragarriagoa den ostatuko aukera ari dira bilakatzen. 2019an Hiriko ostatu-plazen % 6 ziren. 2022An, aldiz, % 10.

**Turisten sarrera Bilbon Bizkaiaren eta EAeren gaineratik hazi da.**

## Turismoa establezimenduetan: Bilboko hotelak eta apartamentu turistikoak

	2022	2022/2021	
		Absolutua	%
<b>Establezimenduak</b>	<b>109</b>	<b>8</b>	<b>7,7</b>
Eguneko eskainitako plazak	10.876	1.830	20,2
Ostatu - gauak	2.146.634	874.372	68,7
Sarrerak	1.109.090	446.356	67,4

Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileen (ETH) inguruko inkesta [info +](#)



5

# Turismoa

Jarduera turistikoa hotel establezimenduetan eta apartamentuetan

## Hotel establezimenduak

- Apartamentuko establezimenduak
- Aireko turismoa eta gurutzealdikoa
- Kongresuen eta bileren turismoa

Eustaten Establezimendu turistikoa hartzaileen (ETH) inguruko inkestaren datuen arabera, Bilbok 89 hotel establezimenduen eskaintza zuen 2022an, horietatik 30 goi-mailakoak (3, 4 eta 5 izarrekoak), eta 59 izan bat edo biko hotelak eta pentsioak dira. Oro har, establezimendu hauek 4.919 logela eskaintzen dituzte egunean, horietatik % 77,6 hiru izar edo gehiagoko hotelak direlarik. Egun eta establezimendu bakoitzeko eskainitako plazen batezbestekoa 109 da. 253 goi-mailako establezimenduetan eta 36 kategoria txikiagoan.

Hiriko hotel establezimenduetan 1.978.327 ostatu-gau erregistratu dira azken urtean, hau da, urte batetik bestera % 66,0 igo dira. Bisitarien jatorriari dagokionez, ikus daiteke nazioko turisten ostatu-gauak % 23,5 igo direla eta nazioarteko turistena are gehiago, % 164,8. Interesgarria da aipatzea hoteletako ostatu-gauen % 77,6 maila handieneko hoteletan dela, hau da, 3, 4 edo 5 izarrekoetan.

**Ia bi milioi hotel ostatu-gau Bilbon.**

## Hotel establezimenduen eskaintza Bilbon

	2022	2022/2021	
		Absolutua	%
<b>Hotel establezimenduak</b>	<b>89</b>	<b>4</b>	<b>4,7</b>
Hiru izar eta gehiago	30	1	3,4
Izar bat edo bi eta pentsioak	59	3	5,4
<b>Eguneko eskainitako logelak</b>	<b>4.919</b>	<b>740</b>	<b>17,7</b>
Hiru izar eta gehiago	3.818	629	19,7
Izar bat edo bi eta pentsioak	1.102	112	11,3
<b>Eguneko eskainitako plazak</b>	<b>9.711</b>	<b>1.517</b>	<b>18,5</b>
Hiru izar eta gehiago	7.604	1.265	20,0
Izar bat edo bi eta pentsioak	2.107	252	13,6

Iturria: Eustat. Establezimendu turistikoa hartzaileen (ETH) inguruko inkesta

[info +](#)

5

# Turismoa

Jarduera turistikoa hotel establezimenduetan eta apartamentuetan


## Hotel establezimenduak

- Apartamentuko establezimenduak
- Aireko turismoa eta gurutzealdikoa
- Kongresuen eta bileren turismoa

Jarduera turistikoak igoera nabarmena izan zuen Bilbon 2022an, guztira 1.038.192 sarrerarekin hotel establezimenduetan, hau da, 406.711 bidaiari gehiago aurreko urtearekiko. Igoera hori nazioarteko turismoaren ondorioz, % 28,1eko igoerarekin, zein nazioarteko turismoaren ondorioz gertatu da, are gehiago, % 151,4 igo baita. Aipatu beharra dago nazioarteko bidaiarien kopurua totalaren % 45 dela.

Estatutik datozen bidaiarien artean, kopuruarengatik Madrilgo Erkidegotik datozenak dira nagusi (% 25,2), eta gero EAEkoak (% 15,2), Kataluniatik (% 13,7), Andaluziatik (% 9,7) eta Valentziar Erkidegotik etorriak (% 5,6). Nazioarteko turismoari dagokionez, nagusi dira Frantziatik (% 15,6), Alemaniatik (% 10,1), AEBtik (% 9,5), Erresuma Batutik (% 8,8) eta Italiatik (% 7,0) datozenak.

## ■ Bidaiarien jatorria



## Ostatu-gauak eta sarrerak hotel establezimenduetan

	2022	2022/2021	
		Absolutua	%
<b>Hoteleko ostatu-gauak</b>			
3, 4 eta 5 izarreko hotelak	1.534.762	626.496	69,0
1 eta 2 izarreko hotelak eta pentsioak	443.565	159.860	56,3
<b>Naziokoak</b>	1.029.323	195.675	23,5
Atzerrikoak	949.004	590.681	164,8
<b>Bidaiarien sarrerak</b>	<b>1.038.192</b>	<b>406.711</b>	<b>64,4</b>
Naziokoak	570.603	125.112	28,1
Atzerrikoak	467.589	281.599	151,4
<b>Batez besteko egonaldia</b>	<b>1,91</b>	<b>0,02</b>	<b>1,0</b>
Naziokoak	1,80	-0,07	-3,6
Atzerrikoak	2,03	0,10	5,3

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen (ETH) inguruko inkesta

[info +](#)

5

# Turismoa

Jarduera turistikoa hotel establezimenduetan eta apartamentuetan

## Hotel establezimenduak

- Apartamentuko establezimenduak
- Aireko turismoa eta gurutzealdikoa
- Kongresuen eta bileren turismoa

Batez besteko egonaldia 1,91koa da bidaiari bakoitzeko. Estatuko segmentuarentzat pixka bat baxuagoa izan da (1,80 egun), eta 2,03 egunekoa da atzerritik datozen bidaiarientzat. Bilbon abuztuan bakarrik gainditzen dira bi ostatu-gauko egonaldiak (2,03 ostatu-gau/bidaiaria). Eta otsailan izaten da batez besteko egonaldi laburrena (1,71).

Bilboko hotelen okupazio-maila %55,8koa da, 2021era arte izandako altuena (%39,8), alegia. Nahiz eta maila baxuan jarraitu, 3 izar edo gehiagoko hoteletan 16 portzentaje-puntu hobetu dituela aipatu behar da, beheko kategorietan 15,8 puntu, okupazioa %55,3 eta %57,7koa izanik, hurrenez hurren.

Hiriko kongresuak eta ekitaldiak berreskuratzea dirudi lanegunetan okupazio horren arrazoi nagusia. Aisialdiko turismoak, aldiz, asteburuetan betetzen ditu hotelak.

Hotel establezimenduen prezioei dagokienez, Bilboko hotelen eguneko batez besteko tarifa 100,7 eurokoa izan zen 2022an, hau da, aurreko urtekoa baino %19,7 altuagoa. Halaber, logela erabilgarri bakoitzeko 66,1 euro jaso dira, 2021ekiko, %67,9 gehiago. Izan ere, aipatu beharra dago datu hauek oraindik ere 2019ko datuen azpitik jarraitzen dutela, Bilboko turismoan errekorrak erregistratu zirenean, 71,4 euroko batezbestekoarekin logela erabilgarriko.

**Eguneko batez besteko diru-sarrerak hobetu ziren, baina oraindik ere 2019koak gainditu gabe. 66,1 € aurreko 71,4 €-ren ondoan.**

## Hotelen betetze-maila

	2022	2022/2021	
		Absolutua	%
<b>Betetze-maila plaza bakoitzeko</b>	<b>55,8</b>	<b>15,9</b>	<b>39,8</b>
Hiru izar eta gehiago	55,3	16,0	40,7
Bi izar arte eta pentsioak	57,7	15,8	37,7
Lanegunak	51,2	14,9	41,0
Asteburua	67,2	18,6	38,3

Iturria: Eustat. Establezimendu turistikoko hartzaileen (ETH) inguruko inkesta.

[info +](#)

## Hotelen prezioak

	2022	2022/2021	
		Absolutua	%
Batez besteko eguneko tarifa logelako (ADR)	100,7	16,6	19,7
Batez besteko eguneko diru-sarrerak logela erabilgarri bakoitzeko (RevPAR)	66,1	26,7	67,9

Iturria: Eustat. Establezimendu turistikoko hartzaileen (ETH) inguruko inkesta.

[info +](#)

# Turismoa

Jarduera turistikoa hotel establezimenduetan eta apartamentuetan

Hotel establezimenduak

## Apartamentuko establezimenduak

Aireko turismoa eta gurutzealdikoa

Kongresuen eta bileren turismoa

Eustaten arabera, egunero 361 apartamentuko eskaintzara iristen diren 20 establezimenduk osatzen dute hiriko apartamentu turistikoen sarea<sup>1</sup>. Halako ostatuak goranzko bilakaera izan dute, 1.165 plazako urteko batezbesteko eguneko eskaintza eta %38,4ko okupazioa izan dute 2022an.

Hiriko apartamentu turistikoen establezimenduetan 70.898 bidaiariren sarrerak zenbatu ziren, 2021ean baino 39.645 gehiago. Horrez gain, 168.307 ostatu-gau erregistratu ziren, aurreko urteko datuaren bikoitza. Aldiz, ostatu-gauen sarrerak gehiago igotzean, bidaiarien egonaldiak apur bat jaitsi ziren eta batez besteko 2,37 egunekoak izan ziren, 2021ean baino %7,6 gutxiago.

Sarreraren %60 Estatuko bidaiariei dagozkie. Gainerako %40 atzeritik etorritakoak izan ziren. Hoteletan bezala, atzeritarren euren egonaldiak zertxobait luzatu zituzten, bidaiari bakoitzeko 2,56 egunera; nazioko bidaiariek 2,25 egunekoak, aldiz.

**2023an, 20 establezimendu daude, guztira 361 apartamentu turistikorekin, 1.165 plaza/eguneko.**

## Apartamentu turistikoak

	2022	2022/2021	
		Absolutua	%
<b>Establezimenduen kopurua</b>	<b>20</b>	<b>4</b>	<b>23,7</b>
<b>Eskainitako apartamentuak</b>	<b>361</b>	<b>146</b>	<b>68,2</b>
Eskainitako plazak/eguna	1.165	313	36,7
Okupazio gradua plaza bakoitzeko (%)	38,4	12,6	48,8
<b>Ostatu-gauak</b>	<b>168.307</b>	<b>88.016</b>	<b>109,6</b>
Naziokoak	95.767	38.159	66,2
Atzerrikoak	72.543	49.860	219,8
<b>Sarrerak</b>	<b>70.898</b>	<b>39.645</b>	<b>126,9</b>
Naziokoak	42.597	19.725	86,2
Atzerrikoak	28.299	19.920	237,7
<b>Batez besteko egonaldia</b>	<b>2,37</b>	<b>-0,20</b>	<b>-7,6</b>
Naziokoak	2,25	-0,27	-10,7
Atzerrikoak	2,56	-0,14	-5,3

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen (ETH) inguruko inkesta.

[info +](#)

<sup>1</sup>Apartamentu turistikoak: "gutxienez logela, bainugela, sukalde-jangela eta sukaldea dituzten ostatu-unitateek osatutako establezimenduak, multzo independente gisa eskainiak eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera eskainiak, modu profesional eta arruntean aldi baterako ostatua emateko erabiltzen direnak, ostatuko pertsonak bizilekuz aldatu gabe".

198/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, zeinaren bitartez apartamentu turistikoak arautzen diren (EHAO 94. Zk., 2013ko maiatzaren 17koa). (Erabilera turistikoko etxebizitza pribatuak kanpo geratzen dira).

5

# Turismoa

Jarduera turistikoa hotel establezimenduetan eta apartamentuetan

Hotel establezimenduak

Apartamentuko establezimenduak

**Aireko turismoa eta gurutzealdikoa**

Kongresuen eta bileren turismoa

2022an, aireko trafikoa 5.129.583 bidaiarikoa izan zen, hau da, aurreko urtekoa baino %98,7 gehiago. %64,5 nazioko hegaldietan iritsi ziren Bilbora, eta %65,6ko igoera izan zuten 2021arekiko. Bestetik, nazioarteko hegaldietan iritsitako bidaiariak totalaren %35,4 izan ziren, hau da, %214,4ko gorakada izan zuten. Eragiketen kopuru osoa urte batetik bestera %70,0 igo bazen ere, 44.919ra iritsi arte, oraindik ere pandemia aurreko datuen azpitik dago (51.591 izan ziren 2019an).

2022an zehar, gurutzaontziekin lotutako jarduera turistikoak 109.348 gurutzaontzietako bidaiari eta 78 gurutzaontzi izan zituen, aurreko urtean baino askoz ere gehiago.


## Bidaiarien garraioa

	2022	2022/2021	
		Absolutua	%
<b>Aireko bidaiariak</b>	<b>5.129.583</b>	<b>2.548.672</b>	<b>98,7</b>
Nazioko hegaldi komertzialetan	3.307.164	65,6	65,6
Nazioarteko hegaldi komertzialetan	1.811.566	1.235.388	214,4
Hegaldiak	44.919	18.490	70,0
<b>Gurutzaontzietako bidaiariak</b>	<b>109.348</b>	<b>96.269</b>	<b>736,1</b>
Gurutzaontziak	78	64	457,1

Iturria: Aena eta Puertos del Estado

[info +](#)

## ■ Aireko bidaiarien bilakaera



5

# Turismoa

Jarduera turistikoa hotel establezimenduetan eta apartamentuetan


- Hotel establezimenduak
- Apartamentuko establezimenduak
- Aireko turismoa eta gurutzealdikoa

**Kongresuen eta bileren turismoa**

Kongresuen jarduera pixkanaka itzultzen joan zen 2022an hirian. Pandemia aurreko, 2019. urteko, jardueraren %83 baino ez zen berreskuratu. 2022an 197.240 ordezkari eta/edo bertaratu ziren hirian egindako 1.162 kongresu eta bileretan, 1,90 eguneko batez besteko egonaldiekin. Biltzarrak eta bilerak nagusia ekonomia, merkataritza eta teknologia arloetakoak izan ziren nagusiki; jarduera handieneko hilabetea azaroa izan zen, eta bertaratuen kopuru nagusia 50 eta 150 pertsona artekoa izan zen.

1.162 biltzar eta bilera.  
200.000 parte-hartzaile inguru.

**■ Kongresu-jardueren sasoikotasuna**




**Kongresuak eta bilerak**

	2022	2022/2021	
		Absolutua	%
Kongresuak eta bilerak	1.162	648	126,1
Bertaratuak	197.240	98.158	99,1
Batez besteko iraupena (egunak)	1,90	0,16	9,2

Iturria: Bilbao Convention Bureau

info +

**■ Kongresuen jardueraren sektorea**



# BERRIKUNTZA ETA INFORMAZIOAREN GIZARTEA

6

Informazioaren gizartea Bilbon  
Ikerketa, garapena eta berrikuntza  
Goi teknologiako sektorea  
Unibertsitatea ikerketa iturri gisa

6

# Berrikuntza eta informazioaren gizartea

## Informazioaren gizartea Bilbon

Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Goi teknologiako sektorea

Unibertsitatea ikerketa iturri gisa

### ■ Enpresak eta informazioaren gizartea

Bilboko enpresetan ekipamenduen inplementazioa eta teknologien erabilera maila erritmo onean doa. Aipatu beharra dago urtero aldeak murrizten doazela enpresa handien eta txikien arteko ekipamendu teknologikoaren mailari dagokionez.

Bilboko enpresen Interneten sartze-maila 1,1 portzentaje-puntu igo da 2021arekiko, enpresen %95,1era iritsiz. Ia guztiak dira 10 langiletik gora dituztenetan. Horri gehitzen badiogu web orria %57,7k dutela (+%3,3), EB27ko herrialdeen testuinguruan postu altuetan kokatzen gaitu.

Enpresen artean merkataritza elektronikoa barneratu da, eta azken urteotan joera hori sendotzen joan da, establezimenduetan praktika hori %5,4 areagotu delarik. 2022an, merkataritza elektronikoen bitartez %13 gehiagoko salmentak izan ziren aurreko urteen aldean, eta online egindako erosketak %33,5 areagotu ziren Eustaten datuen arabera.

Merkataritza elektronikoko transakzioek sortutako negozio-bolumenari dagokionez, erosketak 3.526,4 milioi eurora iritsi ziren; salmentak, aldiz, 2.533,5 milioi eurora. Horrek adierazten du, erosketak elektronikoen egiten dituzten enpresen proportzioa online salmentak egiten dituztenak baino handiagoa izan arren, transferitu beharreko zenbateko ekonomikoak ez direla desberdinak neurri horretan.

Ekipamendu teknologikoa enpresen multzoan barneratzen doa.

10 langile baino gehiago dituzten Bilboko enpresetatik %40,7k merkataritza elektronikoko eragiketak egiten ditu; %29,7k erosketak egiten dituzte Internet bitartez, eta %17k online salmentak kudeatzen dituzte.

### ■ 10 langile baino gehiago dituzten Bilboko enpresen jardura teknologikoak

**Merkataritza elektronikoko eragiketak**  
% 40,7

**Internet bidez erosketak egiten dituzte**  
% 29,7

**Online salmentak kudeatzen dituzte**  
% 17



# Berrikuntza eta informazioaren gizartea

## Informazioaren gizartea Bilbon

Ikerketa, garapena eta berrikuntza  
Goi teknologiako sektorea  
Unibertsitatea ikerketa iturri gisa

Enpresen eraldaketa digitalari dagokionez, Industria 4.0 delakoa, enpresa batek adimen artifiziala digitalizatu eta barneratzeko prozesua da, gero eta datu-kopuru handiagoak pilatzen dira (big data), horiek prozesatzeko algoritmoak erabiltzen dira eta sistema eta gailu digitalen interkonexio masiboa egiten da.

Neurtzen diren adierazleen artean Sare Sozialak dira adierazle nabarmenena, izan ere establezimenduen %59k erabiltzen baitituzte enpresa xedeekin. Enpresaren jarduerarekin eta ekoizpen prozesuekin lotutako aplikazioak (Zerbitzu mugikorak) erabiltzeari onura ateratzen diote establezimenduen %37k.

Hodeiko Zerbitzu Informatikoek (Cloud Computing), ostatu honengatik ordaintzen duten establezimenduen %31rekin, enpresa baten informazioa edo zerbitzua atzitzea ahalbidetzen dute, edonon kokatutako mugikor edo gailu finko batetik Internetera konektatuz.

Ondoren, Zibersegurtasuneko Jarduerak (%24), Gauzen Internet %12,1rekin eta Big Data Analisia (%12,6) daude. Bukatzeko, eta askoz ere pisu gutxiagorekin, Adimen Artifiziala (%4,3), 3D inprimagailuak (%2,3) eta Robotika (%1,2) daude.

2022an enplegatutako pertsonetatik, % 14k telelana egin du, eta nahiko parekatuta daude emakumeak eta gizonak zentzu honetan. Portzentaje hau nahiko murriztu da 2021arekiko (-% 16).

## Eraldaketa digitalaren adierazleak

	Establezimendu guztiak		Establezimenduak > 10 T	
	2022	% 2022/2021	2022	% 2022/2021
Sare sozialen erabilera enpresa xedearekin	58,9	3,4	78,9	3,4
"Hodeiko" zerbitzu informatikoen erabilera	31,0	4,3	48,5	2,3
Zerbitzu mugikorren erabilera	37,0	7,7	57,3	5,5
Gauzen Interneten erabilera (IoT)	12,1	-1,6	25,6	5
Zibersegurtasuneko jarduerak	24,0	3,6	48,9	3,6
Makrodatuen analisia (Big Data)	12,6	-0,1	35,7	2,1
Adimen artifizialeko sistemen erabilera	4,3	0,4	14,2	3,4
3D inprimagailuen erabilera	2,3	-0,1	9,5	-0,6
Robotikaren erabilera	1,2	-0,4	7,5	1,4

Iturria: Eustat. Enpresetan Informazioaren Gizarteari buruzko inkesta

6

# Berrikuntza eta informazioaren gizartea

## Informazioaren gizartea Bilbon

Ikerketa, garapena eta berrikuntza  
Goi teknologiako sektorea  
Unibertsitatea ikerketa iturri gisa

### ■ Etxeak eta informazioaren gizartea

Konektibitateari lotutako ekipamendu teknologikoak etxe gehienetan daude dagoeneko, eta joera gorakorra du biztanleen artean. Bilboko etxeetako %86k du Interneterako konexioa, aurreko urtearekiko 2,4 puntu gehiagok. Arrakala digitalak hor jarraitzen du, baina murrizten ari da.

Bizkaiko lurraldeari dagozkion datuen arabera, azken urtean, 15 urte edo gehiagoko biztanleen %81,3ak du ordenagailu bat gutxienez etxean; %98,4k telefono mugikorra du, eta %91,2k Interneterako konexioa. Teknologiaren arloan, urte hauetan zehar, etxeetan gero eta presentzia handiagoa dute gailu elektroniko batzuek.

Internet bidez jardueri lotutako zerbitzuetatik, ohikoenak komunikazioari eta informazio-bilaketari zuzendutakoak dira. WhatsApp zerbitzuek eta mugikorrerako antzerako beste aplikazioek, adinari, sexuari edo jarduerarekin harremanari erreparatu gabe, %97 gainditzen dute, modalitate guztietan. Sare sozialetan parte hartze handia dago, gazteenen artean gehienbat. Kontsumoari eta etxeko ekonomiari zuzendutako jarduerak dira Internet bidez egindako eragiketa askoren xedea. Gainera, administrazio elektronikoak administrazioarekin bide telematikoen bitartez izapideak egiteko aukera ematen du, eta gero eta gehiago erabiltzen da.

### Internet erabiltzen duten biztanleak (15 urtetik gorako biztanleen %), sexuaren arabera

	2022	% 2022 / 2021
<b>Guztira</b>	<b>86,2</b>	<b>2,4</b>
Emakumeak	84,5	3,5
Gizonak	88,2	1,2
Arrakala digitala (p.p.)	3,7	-2,3

Iturria: Familien Informazioko Gizartearen Inkesta, Eustat

[info +](#)

### ■ Internet erabiltzen duten biztanleak



**Gizonak**  
**% 88,2**



**Emakumeak**  
**% 84,5**

**Arrakala digitala**  
**3,7 p.p.**

6

# Berrikuntza eta informazioaren gizartea

Informazioaren gizartea Bilbon

**Ikerketa, garapena eta berrikuntza**

Goi teknologiako sektorea


Unibertsitatea ikerketa iturri gisa

Europako Berrikuntza adierazleen panelaren xedea - EIS - herrialdeetako ekonomiak zein mailatan gai diren eta berrikuntza jarduerak zein mailatan garatzen dituzten neurtzea da. 2022an, Euskal Autonomia Erkidegoak 0,597ko puntuazioa lortu zuen, eta EB-27aren batezbestekoa baino balio hobea lortu zuen (0,542). Horrek Euskadi herrialde berritzaile sendoen multzoan kokatzen du. Bestetik, Espainia berrikuntza maila apaleko herrialdeen artean kokatzen du, 0,481 balioarekin.

Europako batezbestekoari dagokionez, gure autonomia erkidegoa “Giza baliabideak”, “Ikerketa sistema erakargarriak” eta “Digitalizazioa”, “Inbertsioa enpresak”, “Informazioko teknologien erabilera”, “Kolaborazioak” eta “Ingurumen jasangarritasuna” arloetan nabarmentzen da. Ondorioz, lan-indar oso trebatua eta oso kualifikatua dago eskuragarri, eta gako elementua da zientzia-sarearen nazioarteko lehiakortasunerako eta berrikuntzarako: Nazioarteko ko-publikazio zientifikoak; nazioarteko mailan gehien aipatzen diren argitalpen zientifikoak (bikain izendatuak), eta herrialdeko doktoreen totalaren portzentaje bat atzerriko Doktoreak. Halaber, banda zabalaren sartze-mailan nabarmentzen da, eta batez bestekotik gorako gaitasun digitalak dituzten pertsonak.

Inpaktuen blokean, enpleguari lotuek enpleguan berrikuntzaren arrakasta biltzen dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoak Europako batezbestekoak baino altuagoa du enpresa berritzaileetan enpleguari dagokionez. Ingurumen jasangarritasunerako inpaktuek ingurumenean eragin negatiboa murrizteko hobekuntzak jasotzen dituzte, eta gure erkidegoa baliabideen produktibitatean nabarmentzen da eta Europako Batasunaren parean jartzen da industriaren PM2,5 partikula-emisioen adierazlean.

## ■ Europako Berrikuntza adierazleen panela (EIS 2022)



Iturria: Eustat

6

# Berrikuntza eta informazioaren gizartea

Informazioaren gizartea Bilbon

**Ikerketa, garapena eta berrikuntza**

Goi teknologiako sektorea

Unibertsitatea ikerketa iturri gisa

2021an zehar, Bilbon 163 enpresak egin zituzten I+G jarduerak, 2020an baino bederatziti gehiagok (%3,2). Enpresa horiek guztira 4.220 langile enplegatu zituzten betekizun horietarako, aurreko urtean baino 163 pertsona gehiago (%4), eta %67,7 (2.855) ikertzaileak dira, urte batean %2,7 igo dena.

I+G arloko jarduerak garatzeak 126,6 milioi euroko barne-gastua eragin du, hau da, 2020arekiko %7,7ko igoera izan du. Gastu hau egikaritzen duten azpisektoreekin lotuta, aipatu beharra dago parte-hartze handiena enpresek burutu dutela (%53,7), %31,6 unibertsitateak, jardunaldi honetan inbertsio horretan atzera egin duen bakararra izanik, eta gainerako %14,8 herri administrazioak.

2021an, Euskadiko enpresa berritzaileetatik erdia baino gehiago Bizkaian zeuden (%53), 2020ko pisu berarekin, Eustaten Berrikuntzako inkestaren arabera. %8,4k Produktuaren berrikuntza lantzen dute, eta beste %17,3k Negozioen prozesuak.

Bizkaian, 1.526,1 milioi euro gastatu ziren jarduera berritzaileetan, EAE osoaren %50,4 lurralde honetan egin delarik. Zifra honek 2020arekiko %8,7ko igoera adierazten du. Jarduera berritzaile horietan, barne I+G gastua %52,9koa da, %16,6 I+G arloko erosketentzat (kanpo I+G), eta beste jarduera berritzaileentzat gainerako %30,5.

Enpresa berritzaileen %32,2k finantzazio publikoa jasotzen du berrikuntza jarduerentzat, Eusko Jaurlaritzarena gehienbat, %21,1arekin.

Asmatze-jarduerari dagokionez, 2022an 8 patente-eskaera, 349 merkataritza-marka berri, 11 erabilgarritasun-eredu, 14 industria-diseinu eta 69 merkataritza-izen erregistratu ziren. Aurreko urtearekin alderatzean, diseinu industrialak bakarrik igo da, gainerakoek behera egin dute.


## Patenteak eta markak

	2022	2022/2021	
		Absolutua	%
Patenteak	8	-7	-46,7
Markak	349	-58	-14,3
Eredu baliagarriak	11	-7	-38,9
Diseinu industrialak	14	5	55,6
Izen komertzialak	69	-26	-27,4

Iturria: OEPM: Espainiako Patenteen eta Marken Erakundea

Gastuak I+G arloan: 126,6 milioi € (▲ % 7,7)  
 I+G jardueretako langileak: 4.220 (▲ % 2,7)  
 I+G ikertzaileak: 2.855 (▲ % 2,7)  
 Beste langile batzuk: 1.365 (▲ % 6,8)

## I+G Gastuaren grafikoa egikaritze sektorearen arabera:



6

# Berrikuntza eta informazioaren gizartea

Informazioaren gizartea Bilbon  
Ikerketa, garapena eta berrikuntza  
**Goi teknologiko sektorea**  
Unibertsitatea ikerketa iturri gisa

Goi-mailako teknologia osatzen duten sektore eta produktuek eduki teknologiko handia dutenak biltzen dituzte, eta, konplexutasun-maila dela eta, berrikuntzan etengabeko ahalegina egin behar da, ezagutzak azkar berrituz, baita oinarri teknologiko sendoa ere.

Goi mailako teknologiaren sektore honetan I+G jarduerak egiten dituzten enpresen portzentajea gainerako sektoreetan I+G jarduerak baino handiagoa da. Gauza bera gertatzen da berrikuntzarekin eta I+G+b arlora zuzentzen diren baliabideen proportzioarekin.

OCDEk zehaztutako sailkapenaren arabera, hiru multzo daude. Goi teknologiko edo puntako teknologiko zerbitzuak, teknologia ertain-goi mailako eta Goi teknologiko edo puntako teknologiko zerbitzuen sektoreenak. Bilbon 1.056 enpresa daude sektore horiei lotuta, eta 9.312 pertsoneri ematen diete lan, hiriko enpresa-sarearen %3,3 eta enpleguaren %6 izanik.

Goi-teknologiko sektorearen barruan, establezimenduen % 88 eta enpleguaren %91,4 goi-mailako teknologiko zerbitzuei dagozkie, eta bost establezimendu galdu arren, 436 lanpostu gehitu dira. Horren barruan sartzen dira zinematografia, bideo eta telebista-jarduerak, irrati eta telebista-saioak, telekomunikazioak, programazioa, informatikako aholkularitza, informazio-zerbitzuak eta ikerketa eta garapena.

